

BALIO PROPOSAMENA

1.ARAZOA ETA BEHARRA IDENTIFIKATZEA:

Jende askok uste du birziklatzea ez dela prozesu erraza, baizik eta esfortzu handia eta denbora asko eskatzen duen ekintza bat. Hori dela eta, askotan, zakar guztia poltsa berdinean sartzen dute, plastikozko objektuak eta bestelako materialak bereiztu gabe. Hala ere, praktika honek hainbat arazo sortu ditzake, batez ere birziklatze prozesuetan parte hartzen duten pertsonentzat, eta horrek kalteak eragin ditzake birziklatzeko saioetan.

1.2.KONPONBIDEA ESKAINTZEA:

Gure produktuari ezker, birziklatze prozesuak ez du izango horrenbeste esfortzu fisikorik edo kognitiborik suposatuko erabiltzailearentzat, produktuaren diseinuak eta funtzionalitateak errazten baitu material desberdinen bereizketa eta birziklatzea. Produktu honek materialen banaketaz arduratzen da, eta erabiltzaileak ez du kezkatu behar elementu bakoitza non sartu behar duen, bereizketa egokia automatikoki egingo baita. Horrela, kontsumitzaileak ez du behar izango bere eguneroko ohituretan aldaketarik egin, eta birziklatze prozesua ahalik eta errazena izango da, esfortzu handirik gabe.

Gainera, gure produktua komunitateka banatuko eta jarriko denez, horrek lankidetzeta eta parte-hartze aktiboa sustatuko du, eta, aldi berean, ordaina derrigorrezkoa izango da. Hori dela eta, kontsumitzaileek poltsa bakarra erabiliko dute zakar guztia gordetzeko, eta, horren bidez, eguneroko zabor bilketa eta birziklatzea modu eraginkorrean antolatuko da. Horrela, kontsumitzaileek ez dute behar izango hainbat poltsa erabiltzea, eta produkzio prozesuan erabilitako materialen efizientzia handituko da.

2.ONURAK ETA EMAITZAK:

Gure produktuak, birziklatzea sustatzea eta jendea horretarako animatzea du helburu nagusi. Horretarako, prozesuaren efizientzia eta azkartasuna hobetzeko gailu eta soluzio berritzaileak eskaintzen ditugu. Horrela, herritarrek plastikoaren birziklapen prozesuan parte hartzea errazagoa eta azkarragoa izango dute, eta horrek, bere aldetik, plastikozko poltsen kontsumoa murrizten lagunduko du. Hori dela eta, plastiko gutxiago sortuko litzateke eta, aldi berean, erabilitako plastikoaren ehuneko handiagoa birziklatu ahal izango litzateke, horrek ingurumenari eta jasangarritasunari lagunduz.

Birziklapenaren onurak ez dira soilik plastikoaren murrizketan oinarritzen, baizik eta, baita, klima-alaketaren aurkako borrokan ere. Plastikoak sortzen duen kutsadura eta CO2 isurketa murriztuz, gure produktuak ingurumenaren zaintzan eta hobetzean ere lagunduko du. Horrela, etorkizuneko belaunaldiek planeta osasuntsu eta garbiago bat izango dute, eta gure ekimenak eragin positibo eta iraunkorra sortuko du. Klima-alaketaren aurkako borroka masiboan, gure ekimenak funtsezko pausoak ematen ditu, eta horrek etorkizuneko erronkei aurre egiteko aukera ematen du.

3.DIFERENTZIAZIO PUNTUAK:

Oraindik ez denez gure enpresaren antzekotasunik duen beste enpresarik sortu, gure produktua merkatuan egongo den hoberena izateko potentziala du, eta hori ez da kasualitatea. Gure produktuak berritzaileak dira, eta ingurumenaren zaintzan eta jasagarritasunean oinarritzen dira, horregatik, berezia eta bakarra da. Merkatuan eskuragarri dauden beste alternatibekin alderatuz, gure produktua kalitatezko eta eraginkorra izango da, baita ingurumenaren babesari dagokionez ere. Horrez gain, gure enpresa ez da soilik onura ekonomikoen bila; gure helburu nagusia, enpresaren arrakasta lortzeaz gain, klima aldaketa murriztea eta ingurumenaren babesa areagotzea da. Hori dela eta, gure ekimenak ez du soilik merkatuan arrakasta izatea helburu, baizik eta ingurumenaren aldeko ekintza positiboak sustatzea eta mundu osoko klima-aldaketaren aurka borrokatzea ere. Gure produktua garatzean, etorkizunari begira pentsatzen dugu, eta jakitun gara gure erabakiak eta ekintzak eragin handia izango dutela mundu osoan, eta horrek planeta hobe bat uzteko aukera emango digu.

4.BESTE ARAZO POSIBLEEN KONPONBIDEA:

Oso ohikoa izaten da plastiko edo beirazko hainbat edukiontzitan zati organikoak pilatzea, eta arazo horrek birziklapen prozesua zaildu dezake. Egoera honi irtenbidea bilatzeko, grifo edo txorrota baten mekanismoa dure produktuan kokatzea proposatu dugu. Mekanismo honen bidez, edukiontzien barruan dauden zati organikoak erraz eta modu eraginkorrean bereizi ahal izango lirateke, organikoak ez diren hondakinak garbi utziz. Horrek birziklapen prozesuaren eraginkortasuna handituko luke, eta azken helburua, birziklapena %100ean lortzea, erdiesteko urrats garrantzitsua izango litzateke. Proposamen honek ingurumenaren zaintzan lagunduko du eta hondakinen kudeaketa jasangarriagoa egitea ahalbidetuko du.